

- Eibarko koko-dantzak. Azalpena
- Egitaraua
- Gelan lantzeko ariketak
- Koko-dantzak pausoz pauso (PowerPoint dokumentua)
- Koko-dantzetako pertsonaiak (PowerPoint dokumentua)

EIBARKO KOKO-DANTZAK. AZALPENA

2008. urtean egin zituen koko-dantzak lehenengoz Kezka dantza-taldeak, ikerketa eta hausnarketa luze eta sakonen ostean. Hasiera batean, tradizioz Eibarren egindako eskeen inguruko informazio gutxi zegoen; hala ere, aurkitu zituzten Toribio Etxeberriak idatzitako hainbat aipu, zenbait kantu zahar (koko-moko...), *aixerixa* harrapatu eta haren larruarekin baserriz baserri eskean ibiltzen ziren baserritarrek kontatutako kontuak...

Beraz, Eibarko aratusteetako eta herriaren historiako hainbat osagai eta pertsonaia berreskuratu zituen Kezkak, eta koko-dantzen eta koko-jantzien nondik norakoak zehazten hasi zen. Hala kontatu du Oier Araolazak, Kezka dantza-taldeko zuzendariak eta dantzan.eus elkarteko arduradunak: “Adibidez, *Batista Kojua*-ren inguruko kontakizun bat jasotzen du Juan San Martinek *Zirikadak* liburuan. Kontatzen du Batista pertsonaia herrena zela, *kojua*, eta oso koko-moko jantzizalea. Urtero koko-moko jantzen zen aratusteetan, baina, *kojua* zanez, beti ezagutzen zuten nor zen. Behin, inork ezagut ez zezan bere buruaz mozorrotu zen, *Batista kojuaz*, alegia”.

Kezka dantza-taldearen urte askoko lanaren emaitza da; jaien, errituen, dantzen eta tradizioen behaketa-lanaren eta informazio-bilketaren bidez lortutako fruitua, hain zuzen.

Zapatu-aratuste aurreko larunbata

Zapatu-aratuste aurreko larunbatean ospatzen dira koko-dantzak Eibarren.

Koko-dantzarien eta koko-marruen konpartsa bana baserriz baserri ibiltzen dira Eibarko bailaretan zehar. Bost bailara ditu Eibarrek: Otaola-Kiñarra, Arrate, Mandiola, Gorosta eta Aginaga, eta lau urtean behin ibilbideak errepikatu egiten dira, txandaka. Hau da, urtean baserri jakin batzuetatik pasatzen dira koko-dantzariak, eta lau urtetik behin errepikatzen dira ibilbideak.

08:30ean herriko merkatu-plazan hasten dute eguna dantzariak, baserritarren postuen aurrean; izan ere, baserritar guztiak agur egiteko modua da hori. Jarraian, 9:00ak aldean, urte horretan dagokien baserrietara abiatzen dira.

Baserri bakoitzean, koko-dantzak egiten dituzte, eske-koplak kantatuz eta zarea pasatuz.

Arratsaldean, berriz, mendi aldetik Eibarko erdigunera jaisten dira dantzariak, eta kaleetan zehar ibiltzen dira aratusteetako jai-giroa ezarriz, txaranga batek lagunduta.

Kulturaren erroetara. Puzzle berria, pieza zaharrekin osatua.

Aratusteak gure kulturaren erroekin lotura estua duten arketipo interesgarriak beteta daude. Festa modu tradizionala da, eta festa modu horrekin lotutako pertsonaia prototipikoak berregin nahi izan dira Eibarko koko-dantzekin.

“Eibarren sortutako koko-dantzariak eta koko-marruak bertokoak dira, bereziak eta nortasun propioa dutenak, baina, aldi berean, tradiziozko inauterian eta inauteri europarrean oinarrituta daudenak, bete-betean txertatzen direnak bertan”, azaldu du Oier Araolazak Kezka dantza-taldeko zuzendariak eta Dantzan.eus elkarteko arduradunak. “Ez ditugu bizirik ezagutu koko-mokoetako ohiturak, baina, Eibarko aratusteen inguruan, Toribio Etxeberriak eta Juan San Martinek bildutakoak berebizikoak izan dira puzzle berria pieza zaharrekin osa daitekeela konturatzeko”.

Makila-dantza, koko-dantzariak eta koko-marruak

Dantza-sekuentzia bakar bat dantzatzen dute dantzariak, behin eta berriro, egun osoan zehar. Makila-dantza bera *fox-trot* eta arin-arin batek osatzen dute, eta; makila-dantzaren aurretik kalejira dantzatzen dute, eta ondoren arin-arina.

Baserriz baserri egiten duten ibilbidean, trikitilariak, panderojoleak eta dultzaineroak jarduten dute dantzariekin batera. Kalera jaitsitakoan, ordea, txaranga batek hartuko du musikarien lekukoa.

Koko-dantzariak egiten dute makila-dantza. Arrateko Amaren dantzariak dira koko-dantzariak, baina jantziak egokitu egiten dituzte aratusteetarako; eskularru zuriak, zapata-estalkiak eta maskarak janzten dituzte, besteak beste. Guztira, zortzi koko-dantzari aritzen dira makila-dantzan, buruzagi baten gidaritzapean.

Koko-marruen taldea irekia bezain nahasia da. Aratusteetan diziplina eza eta kaosa nagusitzen dira, eta koko-marruek ere nahasmena dute lege. Hori dela eta, dantza jolas bihurtzen da, eta kolorez, zarataz eta txantxaz betetzen da koko-marruen ingurua. Orain arte koko-marruen konpartsan irten izan diren pertsonaien artean honako hauek ikus daitezke, besteak beste: Hartza eta Maria, Aixerixak, Masustak, Mamarruak, Burburixuak, Martin perratzaillia, Kattalin eta Manuela, Batista *kojua* eta Arraguetako Ama-birjina, Don Eusebio eta Petra, eta Sasikartia. Hala ere, konpartsa zabala bezain malgua da; beraz, ez da itxia. Nork daki zer ekarriko duen berri datorren urteak.

EGITARAUA

08:30ean. Eibarko merkatu-plazan lehenengo dantzaldia

09:00etatik 15:00etara. Koko-dantzak, baserriz base
(Tokatzen den ibilbidea)

- Baserrira heldu, kalejiran.
- Koko-dantzak dantzatu.
- Lehenengo eske-kopla.
- Otarrea pasatu.
- Bigarren eske-kopla.
- Hurrengo baserriari bisita.

19:00etatik 21:00etara. Toribio Etxeberria, Untzaga e
Kalbeton kaleetan zehar koko-dantzak, txaranga bate
lagunduta

PERTSONAIAK

<https://dantzan.eus/kidea/kezka/koko-kronika>

PAUSOZ PAUSO

<https://www.youtube.com/watch?v=tM7fJ3jdRtQ> HYPERLINK "https://www.youtube.com/watch?v=tM7fJ3jdRtQ&feature=youtu.be"&
HYPERLINK "https://www.youtube.com/watch?v=tM7fJ3jdRtQ&feature=youtu.be"feature=youtu.be

PowerPoint dokumentuetako estekak:

Pertsonaiak: <https://dantzan.eus/kidea/kezka/koko-kronika>

Pausoz

pauso:

<https://www.youtube.com/watch?v=tM7fJ3jdRtQ>

HYPERLINK

"<https://www.youtube.com/watch?v=tM7fJ3jdRtQ&feature=youtu.be>"&

HYPERLINK

"<https://www.youtube.com/watch?v=tM7fJ3jdRtQ&feature=youtu.be>"feature=youtu.be

BIBLIOGRAFIA

www.dantzan.eus

EIBARKO KOKO-DANTZAK

GELAN LANTZEKO ARIKETAK

1.- Ingura itzazu **gorriz** koko-dantzarien taldeko pertsonaiak, eta **urdinez** koko-marruen taldekoak.

BURUZAGIXA

MASUSTAK

DON EUSEBIO

BURBURIXUAK

MUSIKARIAK

SASIKARTIA

DANTZARIAK

MAMARRUAK

PETRA ETA MARIA

BATISTA KOJUA ETA ARRAGUETAKO AMA BIRJINA

AIXERIXAK


KATTALIN ETA MANUELA



PAGUANEKUAK

MARTIN PERRATZAILLIA


HARTZA

2.- Idatz ezazu argazki bakoitzaren azpialdean pertsonaia bakoitzari dagokion izena.





D	A	N	T	Z	A	R	I	A	K	E	E	H	P	R	E
M	A	M	A	R	R	U	A	K	U	W	Y	A	A	W	E
J	M	U	I	L	O	G	U	M	N	A	E	R	G	J	E
H	A	L	Q	Y	V	E	A	I	E	T	P	T	U	H	O
I	S	Z	T	E	A	B	N	O	C	J	Y	Z	A	G	A
F	U	S	E	I	A	T	G	J	A	F	V	A	N	Z	Y
F	S	A	Z	B	Z	E	A	F	G	O	Z	W	E	M	E
Y	T	S	Z	I	T	U	P	A	V	N	I	A	K	S	J
F	A	I	T	M	U	M	F	Y	V	I	G	Y	U	B	D
W	K	K	Q	O	O	O	Y	U	Y	W	X	G	A	Q	H
F	R	A	E	X	P	G	W	O	F	Y	C	M	K	U	Y
H	E	R	U	D	O	N	M	E	U	S	E	B	I	O	S
P	T	T	H	E	R	W	Z	C	B	Q	T	F	O	I	U
O	E	I	O	A	Y	A	P	V	T	D	O	N	B	D	U
E	J	A	I	X	E	R	I	X	A	K	Q	W	Y	E	Z
Y	I	U	F	W	B	U	R	B	U	R	I	X	U	A	K



3.- Bilatu itzazu koko-dantzetako bederatzi pertsonaien izenak letra-zopa honetan:

4.-Ordenatu ezazu egitaraua dagokion hurrenkeran:

- BASERRIRA HELDU
- OTARREA PASATU
- MERKATU PLAZAN DANTZA EGIN
- ERDIGUNERA JAITSI (TORIBIO ETXEBERRIA-UNTZAGA-KALBETON)
- KOKO-DANTZA DANTZATU
- LEHENENGO ESKE-KOPLA KANTATU
- BESTE BASERRI BATERA MARTXA EGIN
- BIGARREN ESKE-KOPLA KANTATU

